BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4436

EBAZPENA, 2015eko urriaren 9koa, Hezkuntzako sailburuordearena, sare kontzertatuko ikastetxeei eta Euskadin kokatutako unibertsitateaz besteko ikastetxeekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzko harremanak dituzten elkarte nahiz federazioei 2015-2016 ikasturtean baliabide digitalen bidezko ikaskuntzarako (Sare_Hezkuntza Gelan) berrikuntza-proiektuak garatzen laguntzeko egindako deialdia ebaztekoa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2015eko uztailaren 16an emandako aginduak egin zuen deialdia sare kontzertatuko ikastetxeei eta Euskadin kokatutako unibertsitateaz besteko ikastetxeekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzko harremanak dituzten elkarte nahiz federazioei 2015-2016 ikasturtean baliabide digitalen bidezko ikaskuntzarako (Sare_Hezkuntza Gelan) berrikuntza-proiektuak garatzen laguntzeko.

Agindu horren 9. artikuluak xedatzen duenez, aurkeztutako proposamenak aztertu eta ebaluatzeko lana batzorde batek egingo du (bertan erabakiko du nola osatuko den), eta batzorde horrek, egoki ikusten dituen txosten teknikoak prestatuta, Hezkuntzako sailburuordeari jakinaraziko dio zer proposamen hautatu dituen.

Horregatik guztiagatik, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean agertzen diren erakundeei diru-laguntzak ematea (taulan zehaztzen da bakoitzari zer kopuru emango zaion).

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen diren erakundeei diru-laguntzarik ez ematea (kasu bakoitzean, diru-laguntza ez emateko arrazoiak zehaztuta daude).

Hirugarrena.– Aipatutako aginduaren 15.1 artikuluak xedatzen duenaren arabera, bi alditan ordainduko zaie diru-laguntza ikastetxe onuradunei. Honela:

a) Aurreneko ordainketan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzaren % 60. Esleipen-ebazpena jakinarazi eta hurrengo bi hilen barruan ordainduko da.

b) Bigarrengo ordainketan, proiektuen gainerako % 40. Deialdi-aginduaren 15.2 artikuluak aipatzen duen justifikazio-agiria garaiz jaso eta gero.

Laugarrena.– III. eranskineko hurrengo 35 ikastetxeak hautatzea, 2. artikuluko 3. paragrafoak agindu bezala.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 9a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

Entitatea	Zenbatekoa
Donostiako Kristau Eskola Elkartea	171.000€
Euskal Herriko ikastolak Sociedad Cooperativa Europea	102.600€
Lauaxeta ikastola S.Coop.	1.710€
San Pelayo Ikastetxea	1.710€
Soc. Coop. de Enseñanza Colegio Vizcaya	1.710€
Lauro ikastola S.Coop.Ltda.	1.710€
CPEPS Munabe LBHIP	1.710€
Erain S.A. - Eskibel	1.710€
Erain S.A. - Erain	1.710€
Goiherriko Herrien Ekintza	1.710€
Artxandape ikastola	1.710€
Colegio de Enseñanza Trueba de Artxanda SCOOP	1.710€
Colegio Urkide ikastetxea S.Coop.	1.710€
Sociedad Cooperativa de Enseñanza Zabalburu	1.650€
San Felix Cantalicio ikastetxea	1.650€
Avellaneda ikastetxea	1.650€
Calasanz Santurtzi S.L.	1.650€
Coop. de enseñanza de Baracaldo	1.530€
The English School S.Coop.	1.530€
Colegio del Sagrado Corazón en Bermeo-Carmelitas de la Caridad P	1.530€
Politeknika ikastegia Txorierri	1.400€

II. ERANSKINA

Entitatea	Zioa
CPEIPS Gaztelueta HLBHIP	1
Sopensa S.L. – Ayalde ikastetxea	1
Arizmendi S.Coop. – Almen ikastola	2
Arizmendi S.Coop. – Gaztelupe-Arimazubi ikastola	2
Bera Kruz ikastola	3
Txomin Agirre ikastola	3
Colegio Nuestra Señora de Europa	3
Promoción y Cultura S.A.	3

Diru-laguntza ukatzeko arrazoien kodeak:

1: Eskaera garaiz kanpo aurkeztu dute (7.1. artikulua).

2: Zentroak eskaera indibiduala egin du, baina elkarte edo federazio batek aurkeztutako eskaeraren barruan dago (2.2. artikulua).

3: 15 puntu baino gutxiago lortu ditu (10. artikulua).

III. ERANSKINA

Kodea	Zentroa	Udalerria
014854	CPEIPS Vizcaya HLBHIP	Zamudio
014737	CPEIPS San Pelayo HLBHIP	Ermua
014494	CPEIPS Lauaxeta ikastola HLBHIP	Amorebieta-Etxano
014561	CPEIPS Lauro ikastola HLBHIP	Loiu
014848	CPEPS Munabe LBHIP	Loiu
012507	CPEIPS Eskibel HLBHIP	Donostia
012439	CPEPS Erain LBHIP	Irun
014729	CPEIPS San Jose-Jesuitak HLBHIP	Durango
012537	CPEIPS San Ignacio de Loyola HLBHIP	Donostia
012460	CPEIP Elkar Hezi Santa Eskolastika HLHIP	Oñati
012565	CPES Hirukide Eskolapioak BHIP	Tolosa
010229	CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón	Vitoria-Gasteiz
010244	CPEIPS Paula Montal HLBHIP	Vitoria-Gasteiz
012547	CPEIPS Sta. Teresa HLBHIP	Donostia
014637	CPEIPS El Ave María HLBHIP	Bilbo
014767	CPEIPS B.V. María HLBHIP	Leioa
010254	CPES Apostolico San Jose BHIP	Iruña Oka
012380	CPEIPS Mariaren Lagundia ikastola HLBHIP	Bergara
014618	CPEIPS Amor Misericordioso HLBHIP	Bilbo
010173	CPEIPS Assa ikastola HLBHIP	La Puebla de Labarca
010174	CPEIPS Laudio ikastola HLBHIP	Laudio
014502	CPEIPS Eleizalde ikastola HLBHIP	Bermeo
014516	CPEIPS Urretxindorra ikastola HLBHIP	Bilbo
014527	CPEIPS Seber Altube ikastola HLBHIP	Gernika-Lumo
012352	CPEIPS Haurtzaro ikastola HLBHIP	Oiartzun
014543	CPEIPS Zubi-Zahar ikastola HLBHIP	Ondarroa
012353	CPEIPS Pasaia-Lezo Lizeoa HLBHIP	Pasaia
012978	CPEIPS Azpeitiko ikastola-Ikasberri Koop. HLBHIP	Azpeitia
012361	CPEIPS Axular Lizeoa HLBHIP	Donostia
012328	CPEIPS Elgoibar ikastola HLBHIP	Elgoibar
012336	CPEIPS Uzturpe ikastola HLBHIP	Ibarra
012331	CPEPS Almen ikastola LBHIP	Eskoriatza
012349	CPEIPS Txantxiku ikastola HLBHIP	Oñati
012350	CPEIPS Orioko ikastola HLBHIP	Orio
012386	CPEIPS Salbatore Mitxelena HLBHIP	Zarautz